



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERANSKINA

ASTEASUN BIZI, ASTEASUN EROSI

OINARRI ARAUTZAILEAK

Merkataritza eta zerbitzuetan tokiko garapen ekonomikoa sustatzeko bonu txartelen oinarri arautzaileak eta deialdia

1. artikulua.- Hitzarmena.

Osasunaren Mundu Erakundeak, 2020ko martxoaren 11n, nazioarteko pandemia bihurtu zuen Covid-19 larrialdi zerbitzuak eragindako egoera.

Gaixotasunaren progresioa jaso beharra zegoenez, Ministroen Kontseiluak, 2020ko martxoaren 14an egindako bileran, 463/2020 Errege Dekretua onartu zuen. Errege-dekretu horren bidez, Alarma-estatua izendatu zen, Covid-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko. Dekretu horren 7. artikuluan, pertsonen zirkulazio-askatasunari mugak ezartzen zaizkio. Ondoren, Diputatuen Kongresuak baimena eman dio Gobernuari Alarmaren Estatua luzatzeko.

Alarma-estatuak nahitaez ezarritako mugek ondorio negatiboak izan dituzte esparru ekonomikoan. Horri dagokionez, eten egin da txikizkako lokal eta establezimenduen irekiera, bai eta errege-dekretu horretan lehen beharrekotzat jotzen ez diren jardueren garapena ere, eta, ondorioz, sektore horretan lan egiten duten pertsona askok, beren kontura edo besteren kontura, beren jarduera nabarmen eten edo murriztu behar izan dute.

Gainera, sektore horrek bere jarduerari berrekin ondoren, zailtasunak izaten ari da bizirauteko, eta, beraz, beharrekotzat jotzen da sektorea biziberritzen saiatzeko laguntza ematea.

Horretarako, Asteasuko Udalak, tokiko kontsumoa sustatzeko eta hiri-ingurunea dinamizatzeko, udalerriko merkataritzarako eta zerbitzuetarako erosketa-bonuak erosteko ekimen hau jarri du abian.

2. artikulua. Ekimenaren helburua.

Laguntza hauen helburua Asteasuko denda eta zerbitzuei bonu txartelak erosiz laguntzea da.

3. artikulua. Kreditu erabilgarria.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Deialdi horretarako, Asteasuko Udalak honako partida eta zenbateko hauek bideratu ditu:

0000.471.221.00.01. (2020): COVID 19. -II.Txikizkako Merkataritza-bonuen kanpaina 4.400 €

4. artikulua. Ekimenetik hurbil

Kanpaina honen helburua merkataritzaren eta gainerako zerbitzuen sektoreak sustatzea da, udalerriko hiri-ekonomia suspertzeko, kontsumo kontzientea bultzatuz eta egungo egoerak tokiko establezimenduetan eragindako kalteak arintzen lagunduz.

5. artikulua. Onuradunak.

Laguntza hauen onuraduntzat jotzen dira merkataritza eta zerbitzuen sektoreko udalerriko establezimenduak, betiere deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

6. artikulua. Onuradunen baldintzak

Honako baldintza hauek betetzen dituzten establezimenduak atxiki ahal izango zaizkio kanpainari, beti ere bonoa merkaturatzea eta jasotzea onartzen badute ordainbide gisa:

- A) Asteasun kokatutako establezimendua izatea
- B) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea 2020ko martxoaren 14a baino lehen.
- C) Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- D) Asteasu Udalarekiko betebeharrak egunean izatea.
- E) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. zenbakietan adierazitako debeku-kausetako batean ere ez egotea.

7. artikulua. Eskabideak aurkezteko moduak, tokia eta epea.

Eskaerak jardueraren titularrak egingo ditu zuzenean, edo haren ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatzen duen edozein pertsonak.

Kanpainari atxikitzeko eskaera, Udal bulegoetan egin beharko da, datorren Abenduaren 21a baino lehen, hau barne.

Inprimakian adieraziko da establezimenduak ekimen honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela zinpeko deklarazioaren bidez.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, administrazio jarduleak kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu jada bere esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu.

Ildo horretan, prozedura ebazteko ondoren aipatzen diren beharrezko dokumentuak kontsultatuko dira datu-bitartekaritzako plataformen bidez edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez:

— Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) alta emanda egotearen kontsulta.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela kontsultatzea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela kontsultatzea.

Kontsulta ezin bada egin datu-bitartekaritzako plataformen bidez edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio, salbuespen gisa, dagokion dokumentazioa aurkezteko.

Interesdunek beren datu pertsonalak kontsultatzeari uko egiteko eskubidea baliatu ahal izango dute, inprimakian berariaz adierazita. Interesdunak bere datu pertsonalak kontsultatzeari uko egiteko eskubidea baliatzen badu, dagokion dokumentazioa erantsi beharko du, eta eskabidean atzera egin duela adierazi ahal izango du, aurkezten ez badu.

Edozein kontsulta edo gorabehera egiteko, interesdunak 943.69.19.07 telefono zenbakira jo dezake 9:00-14:00ak bitartean.

8. artikulua. Establezimenduek aurkeztu beharreko agiriak

1. Ekimen honetarako formularioa betetzea, establezimenduak bete behar dituen baldintzak ofizioz eta zuzenean egiaztatzeko baimena emanez, eta oinarri hauetan jasotako betekizunak betetzen direla bermatuko duen erantzukizuneko adierazpena eginez.
2. IFK edo IFZren kopia.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkaritza-idazkia.
4. Asteasuko Udalarari ekimen honetan parte hartzeko establezimenduak bete behar dituen baldintzak ofizioz egiaztatzeko baimenik ematen ez bazaio, honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ziurtagiria (EJZ).
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizun osoa.

9. artikulua.- Establezimendu onuradunak onartzea.

Eskabideak aurkeztu ondoren eta establezimenduek baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, establezimenduak jakinarazpen bat jasoko du eta bertan baieztatuko du kanpainarekin bat egiten duela.

Gainera, kanpainan onartutako establezimenduen zerrenda Asteasuko Udalaren webgunean argitaratuko da (asteasu.eus).

Establezimendu guztiek bonu-txartel kopuru bera jasoko dute, kanpainari atxikitako establezimendu-kopuruaren arabera.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Alkatetzaren eskumena da prozedurak ebaztea. Prozedura horiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta, aldi berean, berraztertzeke errekurtsioa jarri ahal izango da, jakinarazpena jaso eta 30 eguneko epean.

10. artikulua. Bonuak eskuratzea.

Herritarrek 20 euroko bonu bat erosi ahal izango dute, 10 euroren truke. Beraz, Asteasuko Udalak 10 euroko bonu txartel bakoitza diruz lagunduko du. Bonu-txartel bakoitza saltoki edo zerbitzu bati dagokio. Pertsona bakoitzak, gehienez, txartel bat erosi ahal izango du establezimendu bakoitzeko.

Ekimena 2020 ko abenduaren 26an hasiko da eta 2021eko urtarrilaren 11a bitartean edo amaitzen diren arte, erosi ahal izango dira kanpainari atxikitako establezimenduetan.

Establezimenduaren titularrak Udalak emandako erregistro bat bete beharko du, izen-abizenak, NAN zenbakia, eta sinadura adierazita (I. eredua).

— Bonuak erabiltzea:

Bonuak 2021eko urtarrilaren 11 arte trukatu ahal izango dira. Epe hori igarotakoan, bonuak ondoriorik gabe geratuko dira.

Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, aldea ez da eskudirutan itzuliko.

Bonuak ezingo dira eskudirutan trukatu, eta horien zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko. Bonua erosi ondoren ere ez da inolako trukerik onartuko.

11. artikulua.- Establezimendu onuradunaren betebeharrak.

Atxikitako establezimenduek konpromiso hauek hartzen dituzte:

— Kanpainako informazio-materialak biltzea, kokatzea eta, hala badagokio, zabaltzea, eta establezimenduan ikusteko moduan jartzea.

— Udalak emandako erregistroa betetzea, izen-abizenak, NAN zenbakia, eta sinadura adierazita.

— Asteasuko Udalari jakinaraztea establezimenduaren eskura jarritako bonu-txartel guztiak saldu direla, baldin eta salmenta-epea amaitu baino lehen saldu badira.

Establezimenduaren titularrak "bonuak agortuta" eranskailua establezimenduan ikusgai jarri beharko du esleituta zituen bonuak saltzen amaitzen duenean..

12. artikulua. Ordaintzeko prozedura.

Udalak bi epetan ordainduko du dirulaguntza:

— Lehenengo ordainketan, establezimendu bakoitzeko esleitutako bonu-txartelen guztizko zenbatekoaren % 60 aurreratuko da. Kanpainari atxikitako establezimenduen onespena argitaratzearekin batera egingo da ordainketa hori.

— Bigarren ordainketan, bonu-txartel bakoitzaren gainerako % 40 ordainduko da, deialdi honen 13. artikuluan adierazitako dokumentazioa, dagokion egiaztapena eta



ASTEASUKO UDALA
(GIPIZKOA)

Alkatetzaren ebazpena aurkeztu ondoren. Ordainketa bakarra egingo da establezimendu bakoitzeko, eta posta elektronikoz egingo da jakinarazpena.

13. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa.

Bigarren ordainketarako eta, beraz, dirulaguntza justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Salmenta-erregistroaren zerrenda beteta (I. eredua), izen-abizenekin, NAN zenbakiarekin, eta sinadurarekin.

Justifikazio-agiri horiek 2021eko urtarrilaren 5etik 18a bitartean aurkeztu beharko dira. Justifikazio bakarra egingo da atxikitako establezimendu bakoitzeko.

Laguntzaren justifikazio ekonomikoa epe barruan aurkezten ez bada, laguntza ezetsi egingo da, eta onuradunak laguntza itzuli beharko du.

Behar bezala justifikatutako gastuen batura emandako eta ordaindutako zenbatekoa baino txikiagoa bada, Asteasuko Udalak onuradunari jakinaraziko dio eta justifikatu gabeko laguntzaren zatia itzultzeko eskatuko du.

Eskatutako baldintzak betetzen ez badira, edo behar bezala arrazoitutako beste edozein arrazoiengatik, Udalak dirulaguntzaren emakida baliogabetu ahal izango du, eta emandako dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango dio interesdunari.

14. artikulua. Araudi osagarria.

Deialdi honetan aurreikusi ez den guztirako, Administrazio Publikoen Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legean xedatutakoa beteko da.